



Zaintza, erdigunera

Lasarteoriatarak jarduera ugari aurrera eramaten ari dira Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira / 2-3

TXINTXARRI

Otoitz eta dantza, ospatzeko

Andaluzia Eguna ospatu du, berriki, Semblante Andaluzek. Antolatutako jardueren artean, bazkari ederra egin dute, egoitzan / 8

San Pedro Jaietako omendua nor izango den erabakitzeko, parte hartze prozesua abiatuko du udalak / 4

Maiatzeko bozetarako zerrenda aurkeztu du PSE-EEk; "gaitasuna eta esperientzia" uztartu ditu / 5

Iaz 60 pertsonak eskuratu zuten gidabaimena euskaraz Buruntzaldean; 2010etik, 1.252k / 7

Hezkuntza euskaldun baten alde mobilizatuko da eskualdeko Ikama ikasle antolakundea ere, hilaren 23an / 9

Eskoriatzaren aurkako neurketa garrantzitsua irabazi dute Ostadar SKTko Kadete Errendimendukoek / 10

Herri inguruko xake zale gazteek Eskolarteko Gipuzkoako sailkapen saioa jokatu dute / 12

2MÓ 99€
ERREFLEXUEN
AURKAKO
GRADUATUAK

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



R.P.S. 91/20

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua

www.multioplicas.com   

Zaintza jarri nahi dute erdigunean

Jarduera ugari egiten ari dira Martxoaren 8aren harira

Egun bakar baten harira, zenbait astetan aurrera eramaten ari dira Martxoaren 8aren bueltako jarduerak. Gehienak, hori bai, hilaren 8an egin zituzten, asteazkenarekin. Eguerdian, dozenaka herritar elkartu ziren Okendo plazan, udalak deitutako elkarretaratzean parte hartzeko. Arratsaldean, berriz, 6 eta 8 urteko haurrei ipuin eta olerkiak kontatu zizkien Maria Garciak, eta udal ordezkariak datorren urteko Emakumearen Nazioarteko Eguneko programa ilustratu duen kartela zein izango den iragarri zuen: Maria Monge gaztea da egilea. Azkenik, 19:00etan hasita, Lasarte-Oriako Mugimendu Feministak manifestazio jendetsua egin zuen erdigunean barrena, kapitala sistemaren erdigunetik bota eta zaintza zentroan jartzeko premia ozen aldarrikatuta. Amaieran, iragarri zuten Euskal Herriko Mugimendu Feministak iragarritako greba orokorrekin -data aurrerago zehaztuko dute- bat egingo dutela, "gure aldarrikapenak are gehiago entzun daitezten eta sistema honek funtzionatzen ez duela erakusteko". Egun batzuk lehenago, hilaren 5ean, 70 bat lasarteoriatarrek parte hartu zuten 33. Lilatoian, Donostian. Lasterketa jendetsua izan zen, 6.000 emakume elkartu baitziren Gipuzkoako hiriburuan. Nerea Arteaga izan zen helmuga zehaztu zuen aurreneko lasarteoriatarra, 23 minutu eta 25 segundoko denbora eginda.

Lehen esan bezala, udalak egitarau oparoa antolatu du herriko zenbait eragilerekin elkarlanean. Beheko agendan jaso ditugu jarduerak gehienak. Programa osoa <https://txintxarri.eus/bereziak/martxoak-8-2023/agenda> estekan duzue.



Udalak deituta, dozenaka herritar Okendo plazan elkartu ziren, eguerdian. TXINTXARRI



Manifestazio jendetsua egin zuen Lasarte-Oriako Mugimendu Feministak. TXINTXARRI



Martxoaren 8ko kartel lehiaketako parte hartzaileak, udal ordezkariekin batera. TXINTXARRI



Ipuin eta olerkiak kontatu zizkien haurrei Maria Garciak. TXINTXARRI



Nerea Arteaga herritarra (eskuinean), helmugaratzen. JOSEBA PARRON

Ekimenen agenda

Lasarte-Oriako Udalak zenbait jarduerak antolatu ditu herriko eragile batzuekin batera.

Hilak 10, ostirala

• **Solasaldia.** Hegoa elkarteko kide Irantzu Mendia eta Gloria Guzmanek *Gertatutako guztia argitan jarri: Emakumeen giza eskubideen urraketak Mendebaldeko Sahara okupatuan (1975-2021)* hitzaldia emango dute. **Kultur etxeko hitzaldi aretoa, 18:00etan.**

• **Antzerkia.** *Sálvese quien pueda*, Canal 38 antzezlanaren emanaldia egingo du Makelur

konpainiak. Sarrerek 3 euro balio dute dute. **Kultur etxeko auditorioa, 19:30ean.**

• **Afaria.** Casa Humada jatetxean elkartuko dira zenbait herritar. **Casa Humada jatetxea, 21:30ean.**

• **Dokumentala.** Ainarak dokumentala proiektatuko du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerek 6 euro balio dute. **Kultur etxeko auditorioa, 22:00etan.**

Hilak 12, igandea

• **Kontzertua.** Zero Sette Akordeoi Orkestrak musika emanaldi bat egingo du. **Sexuen**

Elkarbizitzarako Emakumearen Zentroa, 13:00etan.

Hilak 15, asteazkena

• **Emanaldia.** Bideoforum bat egingo dute. **Biyak Bat egoitza, 18:00etan.**

Hilak 16, osteguna

• **Ikuskizuna.** *Magma mia*-ren emanaldia egingo du Bea Egizabalek. Sarrerek 3 euro balio dute. Kultur etxeko auditorioa, 19:00etan.

Hitzordu guztiak www.txintxarri.eus atarian ikusgai.

Galdera lehiaketa prestatu dute

Ttakan Kultur Elkartek eta Lasarte-Oriako Udalak elkarlanean aurrera eramaten duten Gazte Kluba programako gazteek lehiaketa bat antolatu dute Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira. Alor desberdinetan jardun zuten edo duten pertsonen buruzko hamar galdera prestatu dituzte: den-denak ongi erantzuten dituztenen artean bina sarrera bikoitz zozkatuko dituzte, Bea Egizabalek hilaren 16an Magma mia ikuskizunari buruz egingo duen emanaldia ikusteko. Kultur etxeko auditorioan izango da, 19:00etan. Parte hartzaile guztien artean beste bina sarrera bikoitz zozkatuko dituzte.

Lehiaketan parte hartzeko azken eguna hilaren 12a izango da, igandea. Hamar galderak erantzutera animatzen bazarete, alboan dagoen QR kodea eskaneatu dezakezue sakelako telefonoarekin, edo, bestela, esteka honetan klik egin: <https://txintxarri.eus/lasarte-oria/1678179709425-m8-galdera-lehiaketa>.



"Sinesten dut jendaurrean egiten dena eraldatzailea izan daitekeela"

BEATRIZ EGIZABAL OLLOKIEGI BAKARRIZKETARIA

Sortzaile lasarteoriatarren 'Magma Mia' azken obra ikusteko aukera izango dute herritarrek. Manuel Lekuona Kultur Etxean taularatuko du, hilaren 16an, 19:00etan

Maddi Zaldúa

Oholtzaz oholtza dabil Beatriz Egizabal Ollokiegi (Lasarte-Oria, 1971) herritarra; *Magma Mia* izena du sortu duen azken bakarrizketak, eta hori erakusten ari da han eta hemen. Hogeita hamar saiotik gora eskaini ditu dagoeneko, eta, hil honetakoekin ere pilatuko ditu gehiago; hamazazpi saio iragarri ditu 29ra bitarte. Horietako bat, Lasarte-Oria izango da, gainera. Datorren ostegunean, hilak 16an arituko da Manuel Lekuona Kultur Etxeko oholtzan, 19:00etan, eta bertara joateko sarrerak, hilaren 13tik aurrera erosi ahal izango dituzte herritarrek. "Oso pozik" dago orain arteko bidearekin; hala adierazi du bere lanaz galdetzeko TXINTXARRI-k egindako elkarrizketan.

'Magma Mia' bakarrizketa taularatuko duzu, herrian, hilaren 16an. Zer topatuko du ikus-entzuleak? Ikusarazi nahi dut zein zaila egiten zaigun sistema patriarkala identifikatu eta zer den ulertzea; egunerokotasunean nola baldintzatzen gaituen patriarkatua bizitzeak. Zentroa, norma gizonezkoa, heteroa eta zuria da, bera da prestigioa zein pribilegioak dituen, eta horrek zer suposatzen duen azalduko dut; nola eraikitzen diren maskulinitatea eta feminitatea, eta horrek dauzkan eraginak.

Nola sortu duzu azken lana?

Bakarrizketen bidea Ane Labaka Mayoz herritarrekin hasi nuen, *Erradikalak gara* eta *Erradikalak ginen* lanekin. Oso eroso sentitzen dut nire burua formatu horretan, eta hortik jarraitzea erabaki dut.



Beatriz Egizabal Ollokiegi 'Magma Mia'-ren emanaldi batean. BEATRIZ EGIZABAL

2021. urteko Feministaldirako bakarrizketa bat eskatu zidaten, eta gaur egungo *Magma Mia*-ren hazia hor dago. Laburragoa zen ordukoa, egin beharreko saio hura motzagoa zelako, baina oinarria hor dago. Gerora, Lasarte-Oria beste saio luzeago bat egiteko eskaintza jaso nuen eta hor garatu nuen hasierako kontakizun hura. **Izenburu eta afixa iradokitzaileak ditu obrak. Nola erabakitzen da sorkuntza lan bat iragartzeko izenburua?**

Cesarri [Cesar Marcos bere bikotekide eta lankidea] zor diot hori. Feministaldia La Palmako (Kanariar Uharteak) sumendiaren leherketa gertatu zen garai berean egin zen. Magma hitza behin eta berriz entzuten genuen, eta txantxa artean "magma mia" gora, eta "magma mia" behera hasi ginen,

konturatu ginen arte edukiari izenburu hori bikain zetorkiola. Uste dut garrantzia berezia duela lan honetan.

Afixa ere beste protagonistetako bat da. Hori ere Cesarrek egin, eta oso ondo irudikatzen du *Magma Mia* sortzea eragin duen hausnarketa: *Haserre nago, sutan nago, irakiten nago...presio gehiegi eta zulo guztiak itxita mantentzeko hezi naute. Sumendia lehertzeaz dago...*

Feminismoaren begiradatik sortu duzu azken lan hau ere.

Argitu nahi dut ez dudala feminismoaz hitz egiten; kontatu nahi dudanari ikuspegi hori jartzen diot. Noski, nire aukera bizitza hortik aztertzea da, mundua hortik begiratu nahi dut. Hori horrela izanik, erakutsiko dut

zahartzarora bidean dagoen emakume bati nola eragiten dion sistema patriarkalak. Feminista bihurtzen da lana, bai, baina begiradak egiten du hori hala izatea. Sormen lana halakoa bihurtzea hautu politiko bat da, bai, ez da oharkabean gertatzen den zerbait. Nire egunerokoa begirada horretatik aztertu nahi dut, horri arreta jartzen ez badiogu, ez baita ikusi ere egiten.

Gaineratu nahi dut, feminista ez den guztia patriarkala dela gutxienez, sexista, eta inork ez duela hala katalogatzen hori delako norma. Guk egiten duguna, berriz, feminista gisa izendatzen da etengabe. Oso kolonizatuta daukagu pentsatzeko era eta ez gara konturatzen.

Publikoarengan eragin bat sortzea bada 'Magma Mia'-ren helburuetako bat?

Bai, bada helburuetako bat. Dena den, azpimarratu nahi dut bakarrizketak maila paretsuan dauden bi xede nagusi dituela. Alde batetik, ikus-entzuleek barre egitea. Oholtza gainean umorea ezinbestekoa da niretzat; hor nago erosoan, nahiz eta presioa ere eragiten didan horrek, ikus-entzuleek barre egin behar baitute. Bestalde, bilatzen dut publikoak hausnarketa egitea ere bai. Badakit nire lanekin ez dudala iraultzarik egingo, baina publikoak pentsaraztea lortzen badut, ni pozik. Hitza hartu eta zerbait esateko dudana aukera aprobetxatu nahi dut.

Jendaurrean erakusten den sorkuntza orok mezu bat du beti. Hori izango da zabaltzen duenaren araberakoa, eta sinesten dut eraldatzailea izan daitekeela. Oholtza gainean ari denak erantzukizuna hartzen du; ez dago obra neutrorik. Berriz ere arestian aipatutakora noa, baina gertatzen da feminista eta antiarrazista denari berehala eta etengabe jartzen zaizkiola etiketak, eta kontserbadorea edo zuria dena, berriz, ez da katalogatzen, neutroa kontsideratzen delako.

Publikoak hausnarketa egin duen jakitea zailagoa izan daiteke, baina barreak entzuten al dira agertokitik? Bai, barre egin du publikoak. Aitortu behar dut, jendeak ni

"SORMEN LANA FEMINISTA BIHURTZEA HAUTU POLITIKO BAT DA"

haserretzen naizen uneetan egiten duela gehien; haserre umoretsua izaten da hori ere, noski, kritikoa.

Oholtzak eskaintzen dizu umorea bizitzeko espazioa?

Bai, erabat. Nire egunerokotasunean, oholtzatik at ez dut hainbeste kanporatzen umoretik, bizirauteko estrategia bat da. Gauzak ikusteko beste modu bat da, bizipenekiko beste perspektiba bat ematen dit. Horrek ez du esan nahi arazo baten momentu latzenean barrez lehertzen naizenik; momentu zailtan zuloan sentitzen naiz, baina hortik irteten naizenean, bizitakoari umorez begiratzea lortzen badut, listo. Hori hala izan dadin asko laguntzen dit taulagainak; hor sentitzen dudana boterea lagungarri zait aurrera egiteko.

Saio sorta ederra datorkizu hil honetan, baina, dagoeneko eskaini dituzu hainbat emanaldi. Zer-nolako harrera izan du ikus-entzuleengan?

31 saio egin ditut jada, eta oso pozik nago; hil honetako emanaldien zerrenda ikustea besterik ez dago bide onean goazela berresteko. Ahoz ahokoa bikain funtzionatzen ari da. Jakin dut jendea behin baino gehiagotan joan dela *Magma Mia* ikustera, eta herri jakin batean ikusi dutenek beste lekuetan gomendatzen ari direla; bultzada ikaragarria ematen dit horrek.

Honen harira, gogoeta bat egin nahi dut. Martxoan gizonezko sortzaileek lan egiten dute? Susmoa dut baietz, eta orduan, jakin nahiko nuke, urteko gainerako hilabeteetan, guk, emakumeok zergatik izaten dugun euren baino aukera gutxiago.

Manuel Lekuona Kultur Etxeko oholtza gainean arituko zara hilaren 16an. Berezia da jaioterrian aritzea?

Hala da, bai. Lasarte-Oria maitatua, zaindua sentitzen naiz. Herrikideekin lan egiteko aukera izan dut [Ane Labaka Mayozeekin eta Intza Alkain Ibargurenekin, besteak beste] eta hori zoragarria da. Zirrara berezia sorrarazten dit ezagutzen nauen jendearen aurrean aritzeak, nahiz eta horrek presio puntu bat ere eragiten duen nigan. Atsegin dut etxean aritzea.

"JENDAURREAN ERAKUSTEN DEN SORKUNTZA OROK MEZUA DU BETI"

Sanpedrotako txupina nork jaurti erabakitzeke

Aurtengo San Pedro Jaiak diseinatzeko lanetan ari da, dagoeneko, udala. Jakinarazi du parte hartze prozesu bat abiatuko duela, festetako omendua aukeratzeko; norbanako edo eragile baten izena proposatuko dute partaideek, zergatia arrazoituta

Txintxarri

Aurtengo San Pedro Jaietako omendua aukeratzeko parte hartze prozesua martxan jarriko duela iragarri du udalak. Egitasmo horren berri eman dute Agustin Valdivia alkateak, Nagore Duran Parte Hartze saileko zinegotziak, eta Txus Alonso Gazteria eta Festak arloko batzordeburuak, eta iragarri dute datorren astean, hilaren 13tik aurrera egin ahal izango dituztela herritarrek euren proposamenak.

Aurten, gainera, alor horretan berrikuntza bat dakar parte hartzen prozesuak. Lasarteoriatar bakoitzak, egunotan, etxean jasoko duen eskuorria postontzi jakin batzuetan utzi ahal izango du (Emakumeen Zentroa, kultur etxea, Gaztelekua, udaletxeko arkupe zaharrak edo kiroldegia), eta, orain arte ez bezala, iritziak sarean ere emateko aukera ere izango du; horrela egin nahi dutenek, udalaren web atariaren bidez, www.lasarte-oria.eus, egin beharko dute. Bi eremu bete beharko dituzte iradokizuna egin nahi dutenek. Alde batetik, omendua izatea nahi duten norbanakoaren edo eragilearen izena zehaztuko dute, eta, bestetik, hautagai hori zergatik



Irudikoa bezalako eskuorria jasoko dute herritarrek, etxeko postontzian. TXINTXARRI

aukeratu duten arrazoitu beharko dute. Azken erabakia udal gobernu taldeak hartuko duela nabarmendu dute.

Parte hartze prozesu honekin, sanpedroak herritarren iradokizunekin batera diseinatzeko helburuarekin, beste bitan ere parte hartu ahal izan dute lasarteoriatarrek. Horietako batean, egitaraua osatu dezaketen euskal musika taldeak, nazio mailakoak, eta

musika taldeak ez diren bestelako jarduerak (antzerkiak, jokoak, eta abar) proposatu ahal izan dituzte. Iritzi ugari jaso ditu udalak: 194. Horiek guztiak aztertzen ari dira orain, ikusteko zeintzuk diren egingarriak eta zeintzuk ez. Bestalde, herriko jaiak iragarriko dituen afixa aukeratzeko lehiaketa ere martxan dago; hilaren 20ra arte dago diseinuak bidaltzeko aukera.

Herritarren zerbitzura dago, berriz ere, KIUB bulegoa

Ia hiru urteko etenaldia eta gero, Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak atekak zabaldu ditu

Txintxarri

Herritarrek berriz ere KIUB Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegora joateko aukera izango dute aurrerantzean. Berriki zabalduko ditu atekak, ia hiru urteko etenaldiaren ostean.

Hala jakinarazi dute Agustin Valdivia alkateak eta Sozioekonomia batzordeburu Nuria Fernandezek. Azaldu dute udalak Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasunari esleitu diola aipatu bulegoa kudeatzeko lana, 98.915 eurotan.

Lizitazioa hiru urterakoa dela argitu dute udal ordezkariak, eta nabarmendu, herritarrek behin eta berriz egindako eskaerari erantzuten diola aipatu zerbitzua martxan jartzeak.

Beko Kale Bidea, 3. zenbakian dago kokatuta KIUB, ambulatorio ondoko eraikinaren bigarren solairuan, eta honako ordutegian joan ahal izango dute interesdunek bertara: astelehenetan 15:00etatik 20:00etara, eta asteartetik, ostiralera, aldiz, 09:30etik 14:30era.



TXINTXARRI

Justa Manchadok, ehun urte

100 urte bete zituen otsailaren 28an Justa Manchado Herrero lasarteoriatarak, eta udal ordezkariak bisita jaso zuen. Egongelako eserlekuan egin zien harrera, eta pozarren jaso zuen Agustin Valdivia alkateak eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Lourdes Acevedok eraman zioten arrosa gorri sorta ederra.

Erribera kaleko etxabeak berritzeko lanak adjudikatu dituzte

Kontratua adjudikatu ala ez erabakitzeke, ezohiko udalbatzarra egin du korporazioak; aho batez onartu dute

Txintxarri

Campezo Obras y Servicios SA eta Jaizubia Obras y Servicios SA enpresek aurrera eramango

dituzte Erribera kaleko etxabeak berritzeko lanak, 3.580.133,18 euroren truke (BEZa barne). Ezohiko bilkura egin zuen

otsailaren 24 goizean udal korporazioak Aldi Baterako Enpresa Elkarte (ABEE) horri kontratua adjudikatu ala ez erabakitzeke. Aho batez onartu zuten kideek.

ABEE hori osatzen duten enpresek hamabost hilabete izango dituzte obrak gauzatzeko, udalarekin kontratua sinatzen duten egunetik zenbatzen hasita.

Hauek dira aurrera eramango dituzten moldaketak: Erribera kaleko gune hori herriko bidegorri sarean sartzea; eremuaren

urbanizazio kondizioak hobetzea; argiteria berritzea, LED teknologiko materiala erabilia; arkupeen egitura indartzeko soluzio bat egitea eta arkupeen azpialdeko lokaletako ur-filtrazioak konpontzea; eta, etxabeak garbitu eta mantentzeko lanak erraztea.

Mahaigaineratu zuten beste gaia, iruzurren aurkako plan bat onartzearena izan zen. Gai hori ere aho batez onartu zuten, baina, aurreko puntuan ez bezala, eztabaidatu egin zuten, bozka azaltzerakoan.



TXINTXARRI

UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2023



Alderdi sozialistaren hautagaiak, Agustin Valdivia alkategaiarekin batera (erdian, zutik). TXINTXARRI

Zerrendan, "gaitasuna eta esperientzia"

Agustin Valdivia alkategaiak bere taldea osatuko duten hamasei hautagaiak aurkeztu ditu, Froilan Elespe Herriko Etxean. "Erroka eta zailtasunei aurre egiteko prest daude guztiak, esperientzia dute eta dagoeneko erakutsi dute zertarako gai diren", nabarmendu du

Txintxarri

Duela lau urteko hauteskunderen emaitzak errepikatuko balira eta alderdi sozialistak zortzi zinegotzi lortuko balitu, ia legealdi hasieratik udal gobernua osatu duten kideen izen-abizenak ez lirakeke aldatuko, zortzi horiek izango baitira maiatzeko bozetara begira PSE-EEK aurkeztuko duen hauteskundearen lehenak: Agustin Valdivia (alkategaia), Nuria Fernandez, David Mateos, Nagore Duran, Iñigo Zabaleta, Lourdes Acevedo, Txus Alonso eta Maite Iglesias.

Pertsona berberak izanagatik, ordena desberdina izango da eta zenbaiten ardurak ere bai. Esate baterako, Nuria Fernandez izango litzateke alkateordea eta Herritarren saila kudeatuko luke, eta David Mateosek, Lurralde arloa. Gainerako bostek orain kudeatzen dituzten eremuetan jarraituko lukete -Zabaletak, Ogasun sailaz gain, Herritarren Antolaketa izeneko departamentu berri bat gidatuko luke-. Horien guztien jarduna goretsi du alkategaiak, eta azpimarratu helburu nagusiak bozak irabaztea eta "duela lau

urteko hauteskundeetan baino babes gehiago lortzea" direla.

Aurpegi berriren bat edo beste gehitu dute hautagaitzara. Julen Etxeberria 19 urteko gaztea da horietako bat; bederatzigarren postuan joango da. Gazte Sozialistetako kidea eta Informatika ikaslea da, "lantalde hau belaunaldi berriekin lotuko duena", Valdiviaren hitzetan. Gazteak eta Euskara sailak kudeatuko lituzke.

Agintaldiari errepassoa

Zerrenda berriari eta etorkizunari buruz hitz egiteaz gain, sozialistek aurkezpen ekitaldia baliatu dute amaitzear den legealdiaren balorazioa egiteko. COVID-19aren pandemiak zein Ukrainaren eta Errusiaren arteko gatazkak kudeaketa "asko zaildu" duen arren, 2019ko hauteskunde programaren betetze maila %93koa izan dela azpimarratu du Valdiviak. "Atsokabar kirol eremua egiteko lanak adjudikatu ditugu eta kiroldegi berria maitza baino lehen lizitatzea espero dugu. Halaber, eskakizun historiko batzuk erantzun ditugu, hala nola, Erribera kaleko etxabeak berritzea". Gerra

Zerrendako kideak

- Agustin Valdivia
- Nuria Fernandez
- David Mateos
- Nagore Duran
- Iñigo Zabaleta
- Lourdes Acevedo
- Txus Alonso
- Maite Iglesias
- Julen Etxeberria
- Leire Bernabe
- Manuel Carballes
- Lurdes Palacios
- Jose Garcia
- Silvia Valencia
- Iñaki Mugica
- Eli Corbacho
- Jesus Zaballos

tarteko, aipatu proiektu horien kostua nabarmen garestitu dela azaldu du alkateak, eta herritarren poltsikoari ez eragiteko finantzazio iturriak bilatu behar izan dituztela.

Amaitzeko, esan du "lanean" jarraituko dutela herritarren beharrak ase eta Lasarte-Oria "herri bizia" izaten jarraitzeko.



ELOPeko alderdikideak, Miren Echeveste ondoan dutela, Andatza plazan. TXINTXARRI

Herritarren iradokizunekin osatu nahi du ELOPe bere programa

Lasarteoriatarrek eskuorri bana jasoko dute etxean eta horien bitartez egin ahal izango dituzte iradokizunak

Txintxarri

Elkarrekin Lasarte-Oria Podemosentzat "ezinbestekoa" da gizartearen beharrak jasotzen dituen hauteskunde programa bat osatzea, eta hori hala izan dadin, herritarren ekarpenak bildu nahi ditu. Horretarako, lasarteoriatarrek etxeko postontzietan jasoko dute eskuorri bat. Bertan alderdi moreak hauteskunderi begira eskuartean duen programaren ardatz nagusiak zeintzuk diren ikusi ahaliko dute, eta hor agertzen den QR kodearen bitartez, ekarpenak sarean

egiteko aukera ere izango dute. Horrez gain, informazio puntuak ere jarraituko dituztela iragarri dute. Lehen iragan asteazkenean, hilak 1 egin zuten, Andatza plazan merkatu eguna baliatuz. Bertan egon ziren herriko ELOPe kide eta maiatzeko hauteskundeetarako aipatu alderdiak aurkeztu duen alkategai Miguel Angel Tolosa eta David Ares zinegotzia. Beraiekin batera, baita ere, Miren Echeveste Elkarrekin Podemosek Gipuzkoako ahaldu nagusi izateko aurkeztu duen hautagai ere.



UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2023

Kanal berezi batean jasotzen ari gara udal hauteskunderi buruzko informazio guztia. Ikusteko, eskanea ezazu QR kode hau.



LAB sindikatua, lehen indarra izatetik "gertu"

Buruntza-Goierri zonaldeko ordezkariak batzarra egin dute, Legorretan. Datozen hilabeteetarako gai nagusiak mahai gainean jartzeaz gain, hauteskunde sindikalen epealdi trinkoko datuak landu dituzte: Buruntzaldean %4,58koa izan da igoera

Txintxarri

Hilabete hasieran Buruntza-Goierriko ordezkarien batzarra aurrera eramán du LAB sindikatuak, Legorretan. Datozen hilabeteetarako plangintzan jasota dituen gai nagusiez jarduteaz gain, hauteskunde sindikalen epealdi trinkoko urte amaierako datuak jarri dituzte mahai gainean. Buruntzaldeako argazkia hau da: 192 delegatu eta ia %32ko ordezkari-tza izatetik 225 delegatu eta %36,47ko ordezkari-tza izatera igaro dira lau urtean; igoera %4,58koa izan da. Eskualdean bigarren indarra izaten jarraitzen badute ere, aldea "oso txikia" dela azpimarratu dute sindikatuko kideek, "%1 baino txikiagoa".

Epealdi trinko hori lau urtetik behin tokatzen zaie sindikatuari, eta ordezkari-tza gehiena irailetik martxora arte berritu behar dute. LABen kasuan, Hego Euskal Herriko errepresentazioaren %56. Urte amaierako itxiera datuak "oso garrantzitsuak" direla adierazi dute sindikatukoek, data horretako delegatuko kopuruaren arabera finkatzen delako ordezkari-tza portzentajea.

Buruntza-Goierri osotasunean hartuta, emaitza "oso onak"



Buruntza-Goierriko ordezkariak, Legorretako bileraren ostean. LAB SINDIKATUA

erdietsi ditu LABek: iazko abenduaren 31n 556 delegatu eta %38,64ko ordezkari-tza izan dute, eta duela lau urte, 493 delegatu eta %30,36ko ordezkari-tza. Hortaz, %8ko igoera izan dute. "LAB izan da delegatuko kopuru eta portzentajearen hazten bakarra", jakinarazi dute sindikatuko horretako kideek.

la 6.000 langile gehiago

Zonalde horretako datuen berri emateaz gain, LAB sindikatuko kideek balioan jarri dituzte afiliazio datuak: azken lau urteetan 6.000 langile gehiagok bat egin dute haiekin. "Horietatik %43,58 dira emakumeak".

Sindikatu horrek 47.742 afiliatu ditu gaur egun, 2018an baino %13,97 gehiago.

"Argi dago gero eta langile gehiagok bat egiten dutela LABen proiektuarekin eta borroka egiteko moldeekin", esan dute. Eskerrak eman dieten behargin guztiei eta ordezkari bilakatzeko hautagai izateko ardura hartzea erabaki dutenei ere bai. "Euskal Herri osoko langileentzako sindikalismo independentista eraginkorra garatzeko konpromisoari eusten diogu. Zuekin, bagara!", nabarmendu dute sindikatuko kideek.



Binakako txapelketako lehen saria bi talderen artean banatu dute. USURBILGO LANBIDE ESKOLA

Vex Robotics Competition-en parte hartu dute zenbait ikaslek

Usurbilgo Lanbide Eskolako talde batek lehen saria irabazi du binakako txapelketan; hiru kide lasarteoriatarrek dira

Txintxarri

STEAM prestakuntza osagarriko bigarren maila egiten ari da Usurbilgo Lanbide eskolako ikasle talde bat. Robotika oinarri hartuta Matematika, Fisika, Ingeniaritza, Pentsamendu Kritikoa eta beste alor batzuk jorratzen dituzte. Ikasturteko helburu nagusia bete berri dute, VEX Robotics Competition lehiaketan parte hartzea, Bartzelonan. Lanbide eskolako arduradunek azpimarratu dutenez, lehen aldian izan da Euskal Herriko zentro batek txapelketa horretan parte hartzen duen lehen aldian. Binakako txapelketan lehen postuan sailkatu dira Gironako Purple Lions taldearekin batera.

Euskal Herriko lehen aldiz bidali du Lanbide Heziketako zentro batek ordezkari-tza aipatu txapelketa horretara. Sei kidekoa izan da taldea: Gorka Arroyo, Jon Arruti, Josefa Molina, Gurutz

Balardi, Amaia Gainza eta Ander Maestro. Lasarteoriatarrek dira azken hiruak. Binakako txapelketaren aurretik kualifikazio proba gauzatu dute, eta hemezortzi taldeetatik hirugarren sailkatu.

Ikasketa prozesua osatzeko

Usurbilgo Lanbide eskola iaz hasi zen ematen STEAM prestakuntza osagarria egiteko aukera, Innova't Educacio enpresarekin elkarlanean. Robotika ardatz hartuta beste jakintza esparru batzuk lantzen dituzte ikasleek, hala nola, Matematika, Fisika, Ingeniaritza, Pentsamendu Kritikoa, Ordenagailu bidezko programazioa eta abar. Helburua da goi mailako ikasketak edo unibertsitatekoak egin nahi dituzten ikasleek STEAM alorretako oinarriko gaitasunak ere jorratzea, alor teknikoak ikasteaz gain.

Elkartasun mobilizazioak

Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeak antolatuta, dozena pare bat herritar elkartu ziren Okendo plazan otsail amaieran, Mendebaldeko Saharako herritarrei elkartasuna adierazi eta Maroko haien lurretatik ateratzeko eskatzeko.

Bestalde, Ukrainako herritarrei babesa emateko mobilizazio bat aurrera eramán zuten, Okendo plazan baita ere.



TXINTXARRI



LASARTE-ORIAKO UDALA



Buruntzaldeko udaletako Euskara Zerbitzuetako ordezkariak, sarien zozketaren egunean, Usurbilen. USURBILGO UDALA

Gidabaimena euskaraz egitera animatu dituzte

Eskualdeko udaletako Euskara Zerbitzuetako ordezkariak jakinarazi dute 60 pertsonak eskuratu dutela gidatzeko agiria euskaraz, 2022an. 400 euroko bederatzari sari banatzeko zozketa egin dute: Lasarte-Oriakoa Sara Etxeberriak irabazi du

Txintxarri

Buruntzaldeko udaletako Euskara Zerbitzuek 2010etik daramate gazteen artean prozesu hori euskaraz egitea sustatzen, eskualde horretako zenbait autoeskolekin elkarlanean. Ordutik, 1.252 ikaslek eskuratu dute gidabaimena hizkuntza horretan; iaz, 60 izan ziren. Usurbilen elkartu ziren erakunde horietako ordezkariak, 400 euroko bederatzari sari nori eman erabakitzeke, zozketa bidez.

Hauek izan dira saridunak: Mirene Iraola eta Jon Mugica (Andoain); Danel Soraluze (Astigarraga); Eider Goikoetxea, Garazi Sarriegi eta Manex Usarraga (Hernani); Sara Etxeberria (Lasarte-Oria); Ekain

Etxeberria (Urnieta); Elorri Armendariz (Usurbil). Horietako bakoitzak 400 euroko sari bana irabazi du, atal teorikoan egindako gastua berreskuratzeko. Zazpi autoeskolak parte hartu zuten iaz: Otamendi, Hernani, Lagunak, Bengoetxea, Mendi, Mugica eta Solozabal.

Aurtengo egitasmoa, martxan

Eskualdeko ordezkariak jakinarazi dute abian dagoela aurtengo egitasmoa. Parte hartzeko baldintzak hauek dira: eskualdeko herriren batean erroldatuta egotea eta gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz gaingitu izana Buruntzaldeko autoeskolaren

batean, 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean. Maiatzean bultzada bat emango diote proiektuari, 18 urte betetzen dituzten herritarrek gutun bana jasoko dutelako etxean.

Bestalde, ordezkariak adierazi dute "pozarren" daudela, jakin dutelako Errenteriako Don Bosco ikastetxeak Goi Mailako ziklo bat eskainiko duela, D ereduan, autoeskoletako irakasleentzat: eskola teorikoak nahiz praktikoak egingo dituzte. "Uste dugu datozen urteetan zentro gehiagok eman ahalko dutela zikloa eta horrek erraztasun handiagoak emango dituela gidabaimena euskaraz atera ahal izateko".

Earra! Bertso Eskolako zenbait kide eskolartekoan ariko dira

Zarautzen abestuko dute Araitz Ramos eta Maddi Lasak; Nikola Iraola, Oihan Navarro eta Xuban Urdalletak, Amezketan

Txintxarri

Gaur, hilaren 10ean hasiko den Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan parte hartuko dute Earra! Bertso Eskolako bost ikasle hauek: Aratz Ramos, Maddi Lasak, Oihan Navarro, Nikola Iraola eta Xuban Urdalleta. Aurreneko biek hilaren 17ko kanporaketa jokatu dute, Zarauzko Urpekoak elkartean, beste lau bertsoariarekin, 20:00etan; eta beste hiruek, 31koa, Amezketako Zazpi Iturri elkartean, beste hiru lehiakiderek, 20:00etan baita ere. Lehiaketak lau kanporaketa izango ditu, bertso afari formatukoak guztiak: www.bertsosarrerak.eus webgunean eros daitezke hitzordu bakoitzerako sarrerak, saio bakoitza jokatu aurreko eguneko eguerdira arte.

Lau kanporaketa horietako bakoitzeko irabazlea zuzenean



Iraola eta Urdalleta. TXINTXARRI

sailkatuko da apirilaren 21ean (ostirala) Lasturko tabernan ospatuko den finalera. Azken saio horretan abestuko duen seikotea puntuazio bidez sailkatutako beste bi bertsoariarekin osatuko dute txapelketaren antolatzaileek.

Udaberriko kanpainari ekin dio Errigorak

Bat egin Errigora balioekin lelopean, udaberriko kanpainari ekin dio Nafarroa Hegoaldea ardatz duen ekimen herritarrek: Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes, euskara ofiziala ez den eremuan eragin nahi du, batik bat. Zonalde horretako produktuz betetako saskiak eros ditzakete herritarrek: oliba olio birjina estra, kontserbak, arroza,

pasta eta lekaleak, besteak beste, euskarazko etiketekin zigilatuta. Hasi berri den kanpainan egitasmo horren balioak nabarmendu dituzte: euskara, auzolana, bertakotasuna eta nekazariekiko bidezko harremana.

Hilaren 29a izango da saskiak eskatzeko azken eguna, asteazkena. Nafarroa Hegoaldeko ekoizleen produktu sorta erosi nahi duten herritarrek www.errigora.eus webgunean egin behar dute eskaera.

martxoak 9 - 29

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

Bat egin
Errigora
Balioekin



Bete ezazu
despentsa
urte guztirako

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.

errigora.eus



errigora

Festa eguna ederki ospatu du Semblantek

Ohorezko topa egin ondoren, ohi bezala, ekimen nagusiak egin dituzte elkarteko kideek. Meza, bazkaria eta musika izan dituzte horretarako bide, eta, betiko lez, giro bikaina izan da. Udal ordezkariak ere parte hartu dute antolatutako jardueretan

Txintxarri

Zumaburuko Arantzazuko Ama parrokian meza rocieroa eginez hasi zuten hilaren 5eko eguna. Eliza ia bete zen elizkizuna eta Semblante Rocieroko lagunen kantak entzuteko. Erregu eta eskaintzetan ere parte hartu zuten, eta hildako bazkideei nahiz 30 urteotan elkartearen alde egin dutenei eskaini zieten meza. Otoitzarekin tartekatu zituzten zenbait abesti, amaierakoa, noski, *Salve rocieroa* izan zen. Ondoren, Duende taldeko lau neskatok dantzatu zuten.

Eguerdiaren, Atsobakarreko egoitzan batu ziren bazkideak

elkarrekin bazkaltzeko. Ordua baino lehen bertaratu ziren asko eta otordua hasi aurreko minutuetan dantza eta kanta aritu ziren atarian. Bazkideez gain, udal ordezkariak gonbidatu zituzten eta Jesus Mari Adan elkarteko lehendakari berriarekin batera eseri ziren mahaira Agustin Valdivia alkatea, David Ares, Estitxu

GOIZEKO MEZAREN OSTEAN, ELKARTEAN JARRAITU ZUTEN SEMBLANTEKO KIDEEK OSPAKIZUNA

Garmendia eta Jon Antxordoki. Adanek ongiatorria eman eta festa ona opa egin ziren bazkideei, alkateari hitza eman aurretik. Honek, gonbita eskertzeaz gain, "Andaluziari eta udalerrri honetara etorri ziren andaluzei" ere eskerrak eman zizkien "euren ahaleginarekin udalerrri hobea egin zutelako".

Bapo jan ondoren, dantza egin ohi dute. Aurten, ordea, talde bat gonbidatu beharrean, egiten duten lana erakutsi nahi izan zieten etxekoek etxekoei. Hala, Semblante Rocierok girotu zuen arratsaldea, mezetan edo ekitaldietan izaten dutena baino tarte zabalagoa baliatuta.



Duende taldeko lau kidek dantzatu zuten Arantzazuko Ama parrokian. TXINTXARRI



Semblante Rocierok girotu zuen festa arratsaldea, elkartean. TXINTXARRI

Esandakoa pentsatu edo pentsatutakoa esan

Txalo Produzioak taldeak *Hobe ixilik* antzezlanaren emanaldia egin zuen ostiral iluntzean, hilak 3 Manuel Lekuona Kultur Etxean. Itziar Ituño eta Ramon Agirre bikoteak obran zehar eztabaidatu zuten norberak pentsatzen duena esan behar ote duen, inolako iragazitik pasa edo besteekiko begirunerik izan gabe, edo, aldiz, besteak mintzen ez dituzten iritziak eman behar diren. Bikotekide bakoitzak joera bat du, baina kateatzen doazen egoeretan batak bestearen ikuspuntua ulertuko du. Ikuskizuna ezarritako ordua baino ordu erdi geroago hasi behar izan zuten Ituñok errepidean izandako arazo batengatik.



Itziar Ituño eta Ramon Agirre, kultur etxean, 'Hobe ixilik' antzeztzen. TXINTXARRI



TXINTXARRI

Mende erdia ospatu du Sasoeta tabernak

Sasoeta tabernak mende erdia urratu du, eta hori ospatzeko, Gloria Estebani omenaldia egin zioten zenbait herrikide eta lagunek. Estebanek eta Marcelino Fernandez senarrak, duela hilabete gutxi hildakoa, izan ziren 1973an negozioa abiatu zutenak, eta egun, Jorge semea da barra atzean lanean dabilena. Trikiti eta txistu doinuek adierazi zieten bertaratu ziren dozenak lagunei Esteban iritsi zela. Arku artetik pasatu eta sarrerara bidea hasi zuenean *Zorionak zuri* abestu diote bildutakoek, eta ondoren, Agurra dantzatu zioten Erketzeko lau kidek. Lore bat oparitu zioten Estebani eta honek hunkituta jaso zuen tabernako sarreran. Bertatik jarraitu zituen musikak batutako zenbait lagunek eskainitako abestiak eta dantzak. Tartean, besarkada eta muxu ugari banatu zizkien zoriondu eta hitz batzuk esatera joan zitzaizkion guztiei.

Hezkuntza euskaldun baten alde, mobilizazioak

Ikama ikasle antolakundearen Buruntzaldeko taldeek herritarrak deitu dituzte hilaren 23ko mobilizazioetan parte hartzera, 'Hezkuntza euskaraz izan behar da' lelopean. Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean aurrera eramango dituzte ekintzak, 12:00etan

Txintxarri

Gazte Euskaltzaleen Sareak manifestazioak antolatu ditu Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan, hezkuntza euskaldun baten alde, hilaren 23an, ostegunarekin, 12:00etan. Eragile ugari ari dira ekintzarekin bat egiten, tartean, Ikama ikasle antolakundea. Buruntzaldeko taldeek bertako herritarrak deitu dituzte ekintza horretan parte hartzera. Arrazoi bat baino gehiago eman dute horretarako, adibidez, hau: "Euskal Herriko ikasleok trabaz betetako bide batekin topo egiten dugu ikasketak aurrera eramateko garaian; eskubide urraketa etengabeak pairatzen ditugu".

Azaldu dute dagoeneko "bigarren mailako herritarrak" direla gazte izateagatik, eta egoera hori "bikoiztu" egiten dela estudiante ere izanda. "Hezkuntza prozesua ezin dugu sekula erabat euskaraz gauzatu: irakasle euskaldunen falta, euskarazko zerbitzu eza, euskaratu gabeko material didaktikoaren etengabeko erabilera, ikasketen eskaintza eza... Urte urte pairatzen ditugu horiek guztiak". Bidenabar, salatu dute gaur egungo hezkuntza ereduak ez duela funtzionatzen euskararen ezagutza eta



Ikama ikasle antolakundeak Donostian egindako mobilizazio bat. IKAMA

erabileraren arteko ispilu gisa, ez baitu belaunaldi berriak euskalduntzeko gaitasunik.

Horregatik, bizi duten egoeragatik "kezkatuta" daudelako, hezkuntza eremua aktibatu dute eta elkarlanean antolatu dira. Arestian esan bezala, mobilizazioak aurrera eramango dituzte Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Iruñean, hilaren 23an, euskaldunak bigarren mailako biztanle izan ezin daitezkeela aldarrikatzeko, eta hezkuntza euskaldun baten alde egiteko.

Eskaerak

- Irakasle eta langile euskaldunak kontratatzea.
- Materiala euskaratzea.
- Hezkuntza eremu euskaldundu bat, horrelako paisaia linguistiko bat bermatuko duena, eremu fisiko, digital eta didaktikoan.
- Euskal Herrira egokitutako hezkuntza eredu bat.



LASARTE-ORIAKO PRESOEN ALDEKO BATZORDEA/TXINTXARRI

Argi eta Iñaki oroitu dituzte

Otsailaren 28an hogeitau urte bete ziren Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi herritarrak auto istripu batean hil zirela, Juankar Balerdi senidea bisitatzera zihoazela Almeriako espetxera. Bi lasarteoriatarrek gogoratu eta euskal presoek aplikatzen dieten dispertsio politika salatu zituen EH Bilduk, ekitaldi batean, egun horretan bertan. Hiru egun lehenago, Dispersioaren Eguna aurrera eramane zuten Lasarte-Oriako Presoen Aldeko Batzordeak: Teresategi mendian omenaldia, talde argazkia, bazkaria, ekitaldia eta kontzertuak egin zituen.



AITZEL
IRIONDO IARZA

CENTRE PÉNITENTIAIRE LANNEMEZAN
Rue des Saligues, PB 70166
65307-Lannemezan Cedex (Frantzia)

Jokoaren sendotasuna, garaipenaren giltza

Ostadar Kadete Errendimendu taldeak neurketa garrantzitsua jokatu du Eskoriatzaren aurka. Partida borrokatu batean garaipena erdietsi du talde urdin-beltzak. Saikapeneko igoera postuetan mantentzeko beharrezkoak dituen puntuak lortu ditu

Txintxarri

Neurketa zail bati aurre egin zion Ostadar SKTko kadete errendimendu taldeak hilaren 4an, Maialen Chourraut kiroldegian. Eskoriatzaren aurka neurtu zituen indarrak talde urdin-beltzak. Jonatan Reino entrenatzaileak adierazi moduan, "maila bereko taldea da eta guri ongi ez datorkigun jokoa egiten du; baloia asko mugitzen du eta kanpoko jaurtiketetan ere fina da". Gainera, joaneko neurketan aurkariak bederatzi punturengatik garaitu zuen.

Horrez gain, etxeko taldeak garaipena lortu behar zuela ere azaldu du prestatzaileak, "multzoko

bigarren mantentzeko eta igoera lortzeko beharrezkoak genituen puntuak".

Eta hori guztia buruan izanik, Ostadarreko kadeteek ez zuten hutsik egin. Partida gogorra eta berdindua jokatu zuten bi taldeek. Hasieratik Ostadarrek aurre hartu zuen eta 4-6 puntuko alde mantendu zuen neurketa osoan zehar.

Eskoriatzak erasoko estrategia aldatu zuen behin baino gehiagotan etxeko taldeari min egin nahian. Kanpoko enahaleginak alferrikakoak izan ziren, ordea; Ostadarrek sendo jokatu zuen. Kadeteek ez zuten gorabeherarik izan eta aurkariak alde murrizten



Ostadarreko jokalaria, erasoan. TXINTXARRI

zuenean, talde urdin-beltzeko jokalariek ongi erantzuten zuten.

Horrela jokaldiz jokaldi alde pixka bat handitzea lortu zuen Ostadarrek eta 57-48 gailendu zen.

Partida biribila

Reino entrenatzailearen ustetan, orokorrean neurketa biribila egin zuen taldeak: "Hitzordua ederki, ezustekorik gabe gaintitu genuen. Garrantzitsua zen gorabeherarik gabeko partida egitea eta bikain jokatu zuten gure jokalariek".

Garaipenaren gakoa defentsan egindako lanean egon zela nabarmendu du prestatzaileak: "Defentsa ona dugu eta neurketan fin ibili ziren gure jokariak; aurkariari kosta egin zitzaion bere jokoa egin eta baloia mugitzea".

Erasoan ere espero baino hobeto jardun zirela onartu du: "Baja garrantzitsua izan genuen, sukarrarengatik jokalaria batek ezin izan zuen jokatu eta horrek eragina izango zuela uste genuen. Ez zen horrela izan. Beste taldekide batzuek, barnekoak batez ere, aurrerapauso bat eman zuten eta poztekoa da".

Aitor Manso, 2022 urteko mendi igoeren garaile

Euskadiko Automobilismo Federazioak iazko txapelketetako saribanaketa egingo du

Txintxarri

Hilaren 11n, Euskadiko automobilismo zaletuak Azkoitiako Baztartxo antzokian bilduko dira. Euskadiko Automobilismo Federazioak 2022 urteko txapelketetako sariak banatuko ditu.

Bertan izango da Aitor Manso herritarra. Lasarte-Oriako gidari gazteak Mendi igoera lehiaketako sari nagusia jasoko du, baita 8. mailako garaikurra ere. Lasarte-Oriako erregulartasunak eta Joseba Iraolak Opakuan ez parte hartzeak saikapeneko lehen postura eraman du herritarra.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONAL MAILA
Antiguoko KE - Ostadar SKT Larunbata. 17:25. Berio, Donostian.
GORENGOEN MAILA
Usurbil FT - Ostadar SKT Igandea. 16:00. Harane, Usurbilen.
ERREGIONAL 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT - Iruñi Bosteko KK Larunbata. 17:55. Michelin kirol gunean.
OHOREZKO JUBENIL MAILA
Ostadar SKT - Touring KE Igandea. 13:25. Michelin kirol gunean.
JUBENIL 1. MAILA, IGOERA
Intxurre KKE - Ostadar SKT B Igandea. 16:00. Florri, Alegian.
JUBENIL 1. MAILA, KOPA
Texas Lasartearra CF - Usurbil FT B Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.
Ostadar SKT C - Urmieta KE B Larunbata. 16:00. Michelin kirol gunean.
OHOREZKO KADETE MAILA
Ostadar SKT - Real Sociedad SAD Igandea. 15:20. Michelin kirol gunean.
KADETE 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT C - Antigua Luberrri KE B Larunbata. 12:40. Michelin kirol gunean.
Texas Lasartearra CF - Arrupe Chaminade CD C Igandea. 11:40. Michelin kirol gunean.
Santo Tomas Lizeoa B - Ostadar SKT B Igandea. 09:00. Berio, Donostian.
OHOREZKO INFANTIL MAILA, KOPA
Mariño CD - Ostadar SKT Igandea. 11:30. Ugalde-Ventas, Irunen.

INFANTIL TXIKI, KOPA
Idiazabal KE - Ostadar SKT Larunbata. 12:00. Arizkorreta, Idiazabalen.
INF. 1. MAILA, TXAPELDUNEN FASEA
Texas Lasartearra CF - Zarautz KE A Larunbata. 14:25. Michelin kirol gunean.
INFANTIL 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT A - Billabona KE B Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
Añorga KKE - Ostadar SKT B Igandea. 14:00. Rezola, Donostian.
INFANTIL F8, KOPA
Ostadar SKT - Usurbil FT B Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.
ARETO FUTBOLA
1. MAILA
Oiratzen KE - Eguzki Arkupe Rehab. Ostirala. 20:00. Elorsoro kirol., Oiarzunen.
2. MAILA
Eguzki ISU Leihoak - AF Antxo Pesc. Ferreres Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
GAZTEEN MAILA
Madamar Zarautz KE- Eguzki Bodegas Ayesa Larunbata. 13:00. Antoniano kir., Zarautzen.
INFANTIL MAILA
Eguzki AF - Arizmendi Eskoriatza Larunbata. 12:00. Maialen Chourraut kirol.
SASKIBALOA
SENIOR 1. MAILA
Ostadar SKT - Drunkat Hoops Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.
SENIOR 3. MAILA
Ostadar SKT - Antigua Luberrri KE Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.

JUNIOR PARTAIDETZA
Ostadar SKT A - Pixel Sistemas BKE Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
ZAST 2005 ZKE - Ostadar SKT B Larunbata. 13:30. Arizbatalde kirol., Zarautzen.
KADETE ERRENDIMENDUA
Innova Hertz Klinika ISB - Ostadar SKT Larunbata. 09:00. Azpeitiako kiroldegian.
KADETE PARTAIDETZA
Ostadar SKT - Easo Basket Sorgintxulo Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
INFANTIL ERRENDIMENDU URREA
Antigua Luberrri KE Ibaeta - Ostadar SKT Igandea. 12:00. Benta Berri kirol., Donostian.
INFANTIL PARTAIDETZA
CDB Erroibide Irun - Ostadar SKT Beltza Igandea. 10:00. Azken Portu kirol., Irunen.
BOLEIBOLA
EUSKAL LIGA
Ostadar SKT - Galdakao BT Igandea. 11:00. Maialen Chourraut kirol.
EUSKAL LIGA, 2. SENIOR
CD Univ. De Navarra - Ostadar SKT Igandea. 11:30. Nafarroako Unibertsitateko kirol., Iruña, Nafarroan.
JUBENILA
Hernani KE 2 - Ostadar SKT Larunbata. 09:30. Ibarra kirol., Eskoriatzan.
KADETEA
Arizmendi D - Ostadar SKT A Larunbata. 09:30. Ibarra kirol., Eskoriatzan.
Udarregi - Ostadar SKT B Larunbata. 12:30. Oiarde kirol., Usurbilen.
INFANTILA
Ostadar SKT A - Lizardi Bi Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

PILOTA
TRINKETA, JUBENILAK FINALA
Hernani (Manterola) - Intza (Urdanpilleta) Larunbata. 11:00. (2. partida) Ametsa trinketa, Iruñen.
UDABERRI TX., JUBENILAK 1. MAILA
Intza - Eibar Igandea. 11:00. (2. partida) Michelin kirol guneko pilotalekua.
UDABERRI TX., JUBENILAK 2. MAILA
EPLA - Intza Ostirala. 18:30. (3. partida) Agustina Otaola pilotalekua, Erreterian.
ERRENDIMENDUA, ALEBINAK 1. MAILA
Intza - Txapagain Igandea. 11:00. (1. partida) Michelin kirol guneko pilotalekua.
ERRENDIMENDUA, ALEBINAK 2. MAILA
Añorga - Intza Ostirala. 18:00. Añorgako pil., Donostian.
GIMNASTIKA
BENJAMIN TOPAKETA
LOKEKO benjaminek topaketa dute. Taldea zein bakarka lehiatuko dira. Igandea. 11:45. Hernaniko kiroldegian.
ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Alcobendas Rugby - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT Larunbata. 16:30. Las Terrazas, Alcobendas, Madrilen.
IGERIKETA
EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA
Buruntzaldea IKTKo jubenil eta absolutu mailako igeriariak Neguko Euskal Herriko txapelketa lehiatuko dute. Larunbata eta igandea. Amaia kiroldegia, Iruña, Nafarroan.

JUDO
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
LOKEKO kadete eta infantil mailako judoek Gipuzkoako txapelketa jokatu dute. Larunbata eta igandea. Agustina Otaola pilotalekua, Erreterian.
ALEBIN MAILA
LOKEKO alebinek eskolarteko jardunaldia izango dute. Larunbata eta igandea. Agustina Otaola pilotalekua, Erreterian.
ATLETISMO
ESPAINIAKO TXAPELKETA
Ostadar SKTko Alex Alkain eta Iraia Alcortak 18 urtez azpiko Espainiako txapelketan parte hartuko dute. Larunbata. 17:30. Orion.
LASTERKETA
UDABERRI LASTERKETA
Lasarte-Oriako kirolariak Gipuzkoako txapelketa izango den Udaberri lasterketan parte hartuko dute. Igandea. 10:00. Donostian.
ARRAUNA
ORIOKO JAITSIERA
Orioko 29. Traineru Jeitsiera - III. Orialki ikurriña jokatu da. Herritarrek dituzten Hondarribia, Donostia Arraun Lagunak eta Hibaika lehiatuko dira. Larunbata. 17:30. Orion.
XAKEA
3. MAILA
Hondarribia Marlaxka B - Taula Xake Kluba Larunbata. 16:00. Hondarribian.
DUATLOIA
AÑORGAKO DUATLOIA
Lasarte-Oriako kirolariak II. Añorgako Duatloian parte hartuko dute. Igandea. 10:00. Añorga, Donostian.

Texas Lasartearrak Allerru garaitu du kopan

I. Erregional mailako taldeak neurketa ona jokatu du Allerruren aurka eta 4-1 gailendu da. Denboraldi gorabeheratsuaren ostean, erregulartasuna dute jokalaririk zuri-urdinek. Bere multzoko lehen sailkatuak dira lasarteoriatarak

Txintxarri

Texas Lasartearra CFko erregional taldeak kopako jardunaldia jokatu zuen hilaren 4an, Michelin kirol gunean. Allerru KE izan zuen aurrez aurre eta 4-1 gailendu zen etxeko taldea.

Yonatan Monroy entrenatzaileak azaldu duenez, neurketa erraza espero zuten: "Aurkariak ez du garaipenik eskuratu denboraldi osoan".

Lehen zatian nagusi izan zen Texas Lasartearra. Atzean sartu zen aurkaria eta baloia jabetza etxeko taldearena izan zen. Baloia mugitzen, hutsuneak bilatu eta erasoak ongi antolatu zituzten zuri urdinek. Gol aukera ugari izan arren, baloia behin bakarrik sartu zuten atean.

Markagailuaren mugimenduak erantzuna izan zuen eta Allerruk presioa igo zuen. "Ordura arte, gure zain zeuden eta erritmo lasaia zegoen. Presioa aldatu eta lehen momentuan, izualdi



Texas Lasartearrako jokalaria, erasoko jokaldi batean. TXINTXARRI

txiki bat izan genuen. Gure jokalariei kosta egin jokatzeko, baina egoerara moldatu eta aurrera egin genuen", azaldu du Monroyk.

Hala ere, atsedendian Beti Onaren partidako mamua zuela onartu du Texaseko prestatzaileak: "Nahiz eta nagusi izan, ateari begira ez ginen fin ibili. Eta azkenean gol batengatik neurketa galdu genuen".

Hori dela eta, indartsu hasi zuen talde zuri urdinak bigarren

zattia eta fruitua lortu zuen, bigarren gola.

Bi eta hutsekoak lasaitasuna eman zion etxeko taldeari eta beste beste bi gol ere egin zituen.

Eta azken minutuetan, akats baten ostean, etorri zen aurkariaren gol bakarra.

Multzoko buru

Garaipenari esker, lehen multzoko buru da Texas Lasartearra, baina Monroyk azaldu modura, "kopa irabaztea ez da helburua oraingoz".

Erregulartasuna lortzea du buruan Texaseko prestatzaileak: "Urtean zehar gorabeheratsua izan da taldearen jarduna. Azken bi neurketetako maila ona izan da, baina bi neurketa galdu eta sailkapenean behera egiten duzu azkar".

Horregatik geratzen diren fase honetako neurketak banan-banan gaintzeko lan egingo du Monroyk eta lesionatuta dituen jokalaririk osatzeak ere xedean laguntzea espero du.

Lasarteoriatarak pistan zein mendian lehiatu dira

UZ Trail mendi lasterketako 23 km. eta 12 km. probetan parte hartu dute herriko ordezkariak

Txintxarri

Herriko atleta federatuek bi hitzorduri egin diete aurre hilaren 5ean bai pistan, baita mendian ere.

Urretxu eta Zumarragako mendietan barrena egiten den UZ Trail mendi lasterketa maila ezberdinetako Euskadiko txapelketa ere izan da aurten. Parte hartzaile guztien artean, bi herritar izan ziren lehian; 23 kilometroko proban LOTMEko kide Borja Granado herritarra eta 12 kilometrokoan taldekide diren Alberto Roman eta Miguel Granado.

Borjak proban luzean 02.24.01 behar izan zituen helmugara iristeko.

Bestalde, proba motzean, Romanek 01.19.27 eta Miguelek 01.53.38 marka egin zuten hurrenez hurren.

Tolosako Berazubi pistan, aldiz, jaurtiketa luzeen proba librea izan zuten Ostadar SKTko atletak. Hodei Garcia (36,39 m.), Nora Manzanal (24,33 m.) eta Helene Martin (27,51 m.) taldekideek xabalina jaurtiketan lehiatu eta euren marka pertsonalak ondu zituzten.

Instalazioak eta materiala hobetzeko inbertsioak

Lasarte-Oriako Udalak 19.331 euro inbertitu ditu hainbat kirol instalaziotan, horiek hobetzeko asmoz. Inbertsioak honako hauek dira:

- Padel pistako zorua aldatuko du Grupo Espacios Verdes 2013 enpresak, 6.086 euro.
- Aretu futboleko pistako ateak ordezkatzeko ditu Antonio Gonzalez Canovas enpresak, 4.481 euro.
- Kiroldegiko igerilekurako sareta berria jarriko du Urteaga Quimica enpresak, 7.888 euro.
- Boleibolean aritzeko material berria Kirol Aukera Material Deportivo enpresak hornituko du, 876 euro.



Test KZL saioan lehiatu ziren Benjamin mailako igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

Buruntzaldea IKTko igerilari gazteek, marka berriak poltsikoan

Buruntzaldea IKTko kideak ederki egin dute igeri Test KZL eta Alebin Ligetako jardunaldietan

Txintxarri

Buruntzaldea Igeriketa Kirol Taldeko alebin zein benjaminen ligako jardunaldi berria lehiatu zuten Tolosako Usabal kiroldegian hilaren 4an.

Benjaminak izan ziren lehenak igerian egiten Test KZL Ligako saioan. Txikienek, 2013 eta 1014 urteko haurrek, tximeleta estiloko bi probari egin zieten aurre; Axel Fuertesek 25 metrokoa eta Irai Ormazabalek 50 metrokoa. Eta biek Igartza taldeko hiru neska eta mutil batekin 6x25 m. erreleboan parte hartu zuten.

Helduxeagoek – June Apeztegia, Aiala Erro, Aitor Ormazabal eta Oier Ormazabal – lau estiloetako 100 metroko eta estilo libreko 400 metroko saioetan egin zuten igeri. Ander Martinez kideak izan ezik, gaztea lau estiloetako 100 m. eta 200 m. libre probetan lehiatu zen. Mutilek lau estiloetako 4x50 m. erreleboa ere jokatu zuten Hernani KEko kideekin batera.

Guztiak ederki moldatu ziren eta Aiala Erroki Gipuzkoako txapelketa jokatzeko beharrezkoa den gutxieneko bi marketatik lehena lortu zuen, 400 m. librea.

Markak ontzen

Alebinek, aldiz, euren ligako bosgarren jardunaldia izan zuten. Iñaki Garcia, Oihan Matute, Mario Amantegi eta Kimetz de la Cruz gazteek 1.500 libre eta 200 m. bular probak jokatu zituzten.

Distantzia luzeko saioan guztiek hobekuntza nabarmenak egin zituzten; Garciak Euskal Herriko txapelketarako marka lortu zuen (19.49,87) eta Matute (19.59,47) eta Amantegi gertu izan ziren (20.00,43). Bular estiloko proban ere guztiek markak ondu zituzten.

Itxaso Iparragirrek, aldiz, 100 m. libre eta 200 m. bizkar probak lehiatu zituen. Lehen postuetan izan zen bietan – hiruugarren eta bigarren izan zen hurrenez hurren – eta bere markak hobetu zituen.

Urdanpilleta, finalera

Intzako kide Peru Urdanpilletak eta Haritza Diaz de Gereñuk indarrak neurtu zituzten Trinkete finaleko atarian otsailaren 25ean. Lehenak neurketa ederra egin zuen. Nahiz eta Diaz de Gereñu tantoak egiten saiatu, Urdanpilletak ez zion aukerarik eman taldekideari eta 35-8 irabazi zuen lehia. Hilaren 11n jokatu den finalean Hernaniko Manterola izango du aurrez aurre.



INTZA KE

Giro ederra, Eskolarteko xake sailkapenean

Eremuko ikastetxeetako xake zale gazteak bildu dira Lasarte-Orian. Eskolarteko Gipuzkoako banakako sailkapen saioa jokatu dute. Euren trebezia erakustez gain xakearen zenbait protokolo ere ikasi dituzte parte hartu duten haurrek

Txintxarri

Lasarte-Oria, Andoain, Billabona, Hernani eta Urnietako xake jokalariek gazteek Danok Kideren Blas de Lezoko lokala bete zuten hilaren 3an. Eskolarteko banakako Gipuzkoako txapelketako sailkapen saioa jokatu zuten Lasarte-Orian.

Bi maila ezberdinetako –alebin eta benjamin– gaztetxoak lehiatu ziren. Taula Xake Klubeko mahaietan etorkizuneko xake jokalariek trebeak direla erakutsi zuten eta lehiaketarekin zerikusia duten hainbat protokolo ere ikasi zituzten, hala nola, hasieran aurkariari eskua eman edo erlojua nola erabili.

Jokalaria bakoitzak launa neurketa jokatu zituen eta lortutako puntuen arabera erabaki zen sailkapena. Lehen hiruak Patxi Arzallus, Adrian Pozo eta Aimar Brosa izan ziren, hiruak alebin mailakoak.

Egun bat geroago Taula Xake Klubeko kideen txanda izan zen. Martxoari hasiera emateko



Haur ugari izan zen Eskolarteko Gipuzkoako txapelketako sailkapen saioan.

Lasarte-Oriako taldeak KBI Zumaiako B izan zuen aurrez aurre. Taulako kideek –Jose Ignacio Echeverria, Juan Figueras, Alejandro Sanchez eta Juan Luis Varela– ederki gainditu zituzten zumaiarrak hiru norgehiagokatan.

Azken jardunaldia

Eskuratutako hiru puntuei esker, Taulako kideak sailkapeneko hirugarren postuan daude

bigarren den KBI Zumaiako Btik puntu erdira. Aldea txikia da eta ligako azken jardunaldia, hilaren 11n, zirraragarria izango da. Zumaiako B taldeak buru den Txaturanga du aurkari eta horretaz baliatuz, Lasarte-Oriako taldeak bigarren postua lortzeko puntu adina eskuratu nahi ditu Hondarribia Marlaxka Dren aurka. Lortuz gero, euren helburu den igoera gertuago izango du Lasarte-Oriako taldeak.

Azken minutuetan garaipenak ihes egin dio Eguzki ISU Leihoak-i

Kaleratze batek eta nekeak 2. mailako taldearen joko baldintzatu eta Jaixkiareto Futbol Klubak berdinketa lortu du

Txintxarri

Eguzki ISU Leihoak taldeak puntu bat lortu zuen Gipuzkoako 2. mailako Ligan. Etxeko taldeak eta Jaixkiareto Futbol Klubak neurketa borrokatua jokatu zuen hilaren 3an, Maialen Chourraut kiroldegiko kantxan eta bosna berdindu zuten.

Jon Arocenak zuzentzen duen taldeak sendo hasi zuen norgehiagokara eta gola egingo zuela zirudien. Erasoan izandako akats batek, ordea, egoera aldatuko zuen; aurkariak baloia eskuratu eta gola egin zuen.



Jaixkiareto jokalaria baloia defendatzen. TXINTXARRI

Kolpea jasan arren, Eguzki ISUko jokalariek ez zuten amore eman eta borrokan jarraitu zuten markagailuari itzulia eman arte.

Bigarren zatian, 25 minutu falta zirela, markagailua 4-1 zegoen. Jaixkiareto atezain jokalaria atera zuen eta gutxira bigarren gola sartzea lortu zuen aurkariak.

Etxekoen bosgarren gola etorri zen jarraian erantzun modura eta neurketa irabazia zegoela zirudien.

Alabaina, nekeak eta jokalaria baten kaleratzeak etzekoen jarduna baldintzatu zuen. Eguzki ISU taldeko entrenatzaileak azaldu modura, "atezain jokalaria gaizki defendatu genuen". Aurkariak ongi baliatu zuen etzekoen ahulgunea eta beste hiru gol egin zituen neurketa berdinduz.



Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak taldeko kideak Nerbioiren eraso geratu nahian. TXINTXARRI

Lehen minutuetan lortutako aldea, garaipenaren gakoa

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak taldeak partida borrokatua irabazi du Nerbioi UBRren aurka

Txintxarri

Euskal Ligako jardunaldiaz gozatu ahal izan zuten errugbi zaletuek hilaren 4an, Michelin kirol gunean. Ohorezko B mailako Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT eta Nerbioi UBR taldeek neurtu zituzten indarrak. Beltzek eraman zuten garaipena, baina ederki borrokatu behar izan zuten.

Lehen zatia nagusitasunez hasi zuen etzeko taldeak eta hemeretzi tanto egin zituen jarraian. Horieta batzuk, Jokin Beloki eta Jon Ibisate herritarrek egin zituzten. Bilbotarrek ez zuten amore eman, ordea; beltzen erasoak guztiz geratu eta atsedena iristerako hamalau puntu lortu zituen.

Bigarren zatia, aldiz, borrokatuagoa izan zen bi taldeek aurkariaren entsegu marra igarotzea lortu zuten, baita gauzatzeak egitea ere. Beltzek

ozta-ozta aldea mantentzea lortu zuten. Beloki herritarrek azken minutuan lortutako zigor kolpeak garaipena eman zion etzeko taldeari.

Harrobia ere fin

Zarautzen 16 urtez azpiko taldeak Domiberia RC Rioja 12ren aurka jokatu zuen eta nagusitasunez gailendu ziren beltzak: 57-5ekoa izan zen markagailua.

Hurrengo egunean, aldiz, Beltzak zein Zarautz taldeetako eskolek topaketa izan zuten Arrasaten. 10 eta 12 urtez azpiko gaztetxoek Arrasate, Txingudi, Rioja eta Berako taldeekin bat egin eta neurketa ezberdinak lehiatu zituzten.

Eta lan onaren seinale selekzioen deialdiak dira. Hilaren 11n, Beltzakeko Eric Perez 13 urtez azpiko Gipuzkoako selekzioarekin entrenamendua saioa izango du Hondarribian.


Hirugarren Ermuako lehiak

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) gimnastikako jubenilak Ermua Hiria I. Torneo podiumean izan dira. Euskal Erkidegoko jubenil B mailako zortzi talde izan ziren aurrez aurre otsailaren 25ean jokatu zen lehiaketan. Lasarte-Oriako gimnastek mazoekin egin zuten lan eta brontzezko domina eskuratu zuten. Herriko kirol elkarteko prestatzaileak pozarren daude taldeak urteko lehen torneoan lortu duen emaitzarengatik.




LOKE GIMNASTIKA

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Urko
Zorionak Pottoko!! Ondo pasa zure 7garren urtebetetzean, ta beti bezain alai eta umoretsu jarraitu. Asko maite zaitugu!!



Mikel Leon
Zorionak familiaren partetik! Urte polita izan dadila... Asko maite zaitugu!



Naroa
Zorionak gure maitea!!! Zure 2. urtebetetzean. Ama eta aita partez! Asko maite zaitugu!!



Oier
Zorionak! Ondo ospatu zure urtebetetzea!! Segi hain jatorra. Enaut, aiton-amona eta familien partetik, maite zaitugu bihotzez.




Nikole
Zorionak Nikole! Bat, bi, hiru eta lau! Lau kandela itzaliko dituzu igandean eta gu zurekin ospatzeko gogotsu gaude. Joanes, aitaxo eta amatxo.



Eñaut
Zorionak etxeko irrifar eta begirada goxoeneko mutilari! Zenbat maite zaitugun Eñaut!

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 9




Larunbata, 10




Igandea, 11




Astelehena, 12




Asteartea, 13



Asteazkena, 14



Osteguna, 15



GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 10	DE MIGUEL	EGUNeko FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 11	URBISTONDO	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 12	URBISTONDO	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 13	GANDARIAS-URIBE	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 14	DE ORUE	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 15	DE MIGUEL	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 16	LASA	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11, Hernani. 943 33 60 77

'URTE OSOKO GUARDIAK' APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:	LARRIALDIKO TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943-37 16 29	OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84	DYA: 943-46 46 22
KIROLDEGIA: 943-37 61 82	GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA:	UDALTZAINAK: 943-36 24 42
943-37 61 81	ERTZAINAZA: 943-53 88 40
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79	SOS DEIAK: 112
KIUB: 943-36 16 05	
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21	
MUNTTERI AEK: 607 62 52 33	

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n. Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

ESKUTITZA

Ukrainako inbasioaren urteurrena

KIKE INTXAUSTI

Urtarrila amaieran, Ukrainako inbasioaren urteurrena baino hilabete lehenago, Bilduk gerrari buruzko jarrera finkatu zuen irrati-elkarrizketa batean. Arnaldok hiru puntutan laburtu zuen: 1) NATOrE, 2) Errusiak Ukraina inbaditzeari gaitzespena eta 3) Eskalada militarren aurka, bakearen alde eta irtenbide negoziatu baten alde.

Kezkatzen nau ukrainarrak eta defendatzeko duten eskubidea ez direlako aipatzen. "Ez dela giza eskubideei dagokieneko gerra bat ebatzen ari, interes estrategikoei dagokiena baizik, alde batetik, zein bestetik" (NATO eta Errusia), esateak, uste dut alde batera uzten dituela legez kanpo eta bortizki erasotuak izan direnak -2014tik hona-. Izan ere, ukalezina da Ukrainako biztanleria zibila giza eskubideen aurkako eraso oso larriak jasaten ari dela.

Armen bidalketari eta eskalatze militarren dagokienez, honela dio: "nola garaitzen da potentzia nuklear bat arlo militarren?", iradokitzen duelarik

ezinezkoa dela potentzia nuklear batek gerra bat galtzea (horren arabera, potentzia nuklear bat izatea al da erasotzeko eta defendatzeko modurik onena?).

Baina ez da egia. Estatu Batuek eta Sobietar Batasunak gerra garrantzitsuak galdu dituzte Gerra Hotzaren garaian, baita geroago ere. Ipar Vietnamek Ameriketako Estatu Batuak garaitu zituen eta Afganistanek Sobietar Batasuna, besteak beste.

Konponbide diplomatikoari dagokionez, ideia faltsua da gerrak diplomaziarekin eta negoziazioekin amaitzen direla. Ez denak, batzuk besterik ez. II. Mundu Gerra Alemania eta Japoniaren errendizioarekin amaitu zen. Koreakoa armistizio batekin. Vietnamgoa, AEBen irteerarekin eta Hego Vietnamgo kapitulazioarekin. Afganistango azken gerra mendebaldeko ebakuazioarekin eta talibanen garaipenarekin

Nire ustez, duela urtebete Mendebaldearen agenda aipatu hiru puntuena izan balitz, Ukraina Errusiaren menpe legoke jada, salbuespen erregimen kriminal baten pean; nahikoa da azken urteko gertaerak eta Putinen duela gutxiko diskurtsoan esan zuena ikustea.

AZOKA TXIKIA

ALOKAIRUA
Garaje itxia alokatzen da Nagusia kalean, DIA supermerkatuaren parean. Harremanetarako zenbakia: 617 91 06 56.

LANA
ESKARIA
Neska euskalduna eskaintzen da, astean bi arratsaldez etxeko lanak egiteko edo ta haurrak zaintzeko. Harremanetarako telefonoa: 646 48 58 11.

Lan bila nabil egun osoz edo orduka (eguez zein gauez). Erietxeetan ere zaintza lanak egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 624 63 06 99.
Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan

zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Adineko pertsonak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Paperak behar bezala ditut eta

eskarmentua. Harremanetarako zenbakia: 648 90 67 82.

Kurtsuan zehar haurrak arratsalde zaintzeko prest. Esperientzia dut. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79.

Adineko pertsonak zaintzeko prest nago. Esperientzia dut eta baita paperak ere. Harremanetarako zenbakia: 627 20 61 10.

Umeak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

SALEROSKETA

SALDU
Su egurra saltzen da (haritza), tximinirako, ekonomikarako... Etxera eramatea da. Harremanetarako

zenbakiak: 667 23 23 00 eta 616 83 09 02.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest dagoena, goizez nahiz arratsaldez. Harremanetarako zenbakia: 688 65 56 93

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646 82 44 66

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julen Basterra,
Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaleak
Egoitz Epelde, Iñigo Garcia, Julene
Iraola, Sergio Hernandez, Ander
Hazas, Endika Merchan eta Gorka
Morales.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN

OSTIRALA 10

LASARTE-ORIA Jaiak

Sorgin Jaiak-ek aurtengo festa alternatiboak antolatzeko bilera egingo du.

Xirimiri elkarteak, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Martxoaren 8a

Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan, zenbait jarduera aurrera eramango dituzte:

18:00etan, *Gertatutako guztia argitan jarri: Emakumeen giza eskubideen urraketak Mendebaldeko Sahara okupatuan (1975-2021)* hitzaldia egingo dute kultur etxeko hitzaldi aretoan.

19:30ean, *Sálvese quien pueda, Canal 38* antzezlanean emanaldia egingo du Makelur konpainiak. Sarrerek 3 euro balio dute.

21:30ean, emakumeen afaria egingo dute, Casa Humada jatetxean.

22:00etan, *Ainarak* dokumentala proiektatuko dute, kultur etxean. Sarrerek 6 euro balio dute.

Herrian barrena, egun osoan zehar.

LARUNBATA 11

LASARTE-ORIA Zinema

Euskal Dokumentalen Zikloko bigarren emanaldia egingo du Okendo Zinema



LASARTE-ORIA Hitzaldia. Emakumeen Nazioarten Egunaren harira udalak eta zenbait eragilek antolatutako egitarauaren barruan, *Gertatutako guztia argitan jarri: Emakumeen giza eskubideen urraketak Mendebaldeko Sahara okupatuan (1975-2021)* hitzaldia egingo dute. Hegoa elkarteak kide Irantzu Mendia eta Gloria Guzman izango dira hizlariak.

Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoa, 18:30ean.

Taldeak: *Kuartk Valley* filma. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 20:00etan.

DONOSTIA Kontzertua

Alboka Abesbatzak kontzertua emango du Luberrri koruarekin batera. Lasarte-Oriako taldeak Erdi Aroko eta Errenazimenduko musika lehiaketa batean parte hartuko du apirilean, Arnotegui izenekoan; bertan abestuko duen egitarauaren zati bat aurkeztuko

du Donostiako emanaldian.

Antiguako San Sebastian Martiria parrokia, 20:00etan.

IGANDEA 12

LASARTE-ORIA Martxoaren 8a

Zero Sette Akordeoi Orkestrak kontzertu bat emango du. Sarrera doakoa da.

Emakumeen Zentroa, 13:00etan.

Euskal Dokumentalen Zikloa

Okendo Zinema Taldeko kideek Euskal Dokumentalen Zikloa antolatu dute aurten ere; hirugarren aldia izango da. Gaur ekingo diete proiektioei, hilak 10, *Ainarak* ikus-entzunezkoarekin. Beste bost lanekin osatu dute egitaraua: *Kuartk Valley*, *Izaro*, *918 gau*, *Zumiriki* eta *Los Xey*.

Esan bezala, aurtengo zikloa *Ainarak*-ek irekiko du ostiral honetan, hilak 10. Emanaldia kultur etxeko auditorioan izango da, 22:00etatik aurrera. Sarrerek 6 euro balio dute eta areto horretako leihatilan nahiz Kutxabank Sarrerek atarian eros daitezke.

Juan San Martin eta Ritxi Lizartzak zuzendutako ikus-entzunezko horren protagonistak Nafarroatik Zuberoara (Maule hiriburura, konkretuki) espartingintzan aritzera joan ziren milaka emakume dira. Anne Etchegoyen kantautorearen eskutik ezagutuko dute ikus-entzuleek behargin horien istorioa: 1870etik 1940ra aritu ziren, espartinak egiteko fabriketan. 12 urtetik beherakoak askotan, familia nahiz jaioterra utzi eta lanera joaten ziren. Urte bakoitzeko urriaren 7an abiatzen ziren eta udaberriko elurrak urtu arte ez ziren itzultzen; urtaroei lotutako migrazioa izaki eta beltzez jantzita joaten zirenez, *Ainarak* deitzen zieten.

Bost dokumental gehiago

Kuartk Valley filma izango da zikloko bigarrena: bihar emango dute, hilaren 11n, 20:00etan. *Izaro* izango da hurrengoa, hilaren 17an, 22:00etan. Emanaldi sorta martxoko azken asteburuan itxiko dute, hiru film proiektatuta: hilaren 24an *918 gau* ikusi ahalko dute lasarteoriarrek, 22:00etan; hurrengo egunean, *Zumiriki*, 20:00etan; eta, bukatzeko, hilaren 26an, igandearekin, *Los Xey, una historia de película*, 19:30ean. Proiektio horiek guztiak kultur etxeko auditorioan aurrera eramango dituzte. Sarrerek 6 euro balio dute.



Aurtengo programa. OKENDO ZT

Martxoaren 8tik aurrera

berria
fm

PODCASTA

Ziklo berria

Kazetaritza
feminista
erraietan
eta uhinetan

Hamabostean behin, asteazkenez,
Berria.eus/podcast webgunean
eta plataformetan entzungai.

UXUE Rey

ANE Eslaba

Gerentzia-postuetan emakumeak %6a bakarrik izatea ez da prestakuntza edo lidergo faltagatik. Erakundeetan gizonezkoen pribilegioak eta rola betiketzen direlako baizik.

Martxoak 8,
Emakumeen
Nazioarteko Eguna



EMAKUMEAK GORA

emakumeakgora.eus

#emakumeakgora

emakumeakgora.eus



IRABAZLEAK

IRAKURLEEN BOZKATUENA

EPAIMAHAIK AUKERATUTAKO

(Isaac Farre, Idoia Telleria, Yon Mikel Rodriguez eta Mabel Pedreira)



Avenida taberna/jatetxean bi menu



Avenida taberna/jatetxeko patata tortilla



Avenida taberna/jatetxean bi menu

txintxarri

